

## JOAN-ETORRI BAT GERNIKARA<sup>(4)</sup>

Gaztezarohan neukan aldian  
 Alegera biotza,  
 Chairoagoa barriz gaur baño  
 Bideetarako gorputza;  
 Joan etorri arin bat neban  
 Nik egin Gernikaruntza,  
 Eta gaur kantau nai neuke zelan  
 Ibilli nintzan aruntza.

Basorik baso Solluben zear  
 Jatsiaz beruntz niñoián,  
 Mendiak berde nekutsazala  
 Ichas urdiña aurrean;  
 Echalde zuri asko or emen  
 Gorderik zugatz artean,  
 Non bizi ziran len bizkaitarrak  
 Aukera bete betean.

Bagilla zan da, zugatz guztiak  
 Egozan orriz jantziak  
 Perlaz legeche loreagotu  
 Eginda lora guztiak;  
 Inontz gozoak eukazalako  
 Chipristiñakaz bustiak,  
 Gari buruak mardo egozan,  
 Artoak sendo jagiak.

Astiro bera jatsi nintzan da  
 Lauan banoa aurrera,  
 Zoratuagaz begiratzean  
 Alde bat zeñda bestera;  
 ¿Nor ez zoratu ikusitean  
 Aren ikusgei ederra,  
 Chori politik chorrochioka  
 Eztitzen deben gañera?

Eguzkia zan goisetik jagi,  
 Errañu meiak jaurtika,  
 Laster chunchurrak asi jakozan  
 Barreka iratzarrita;  
 Bildots ta chalak ikotian da  
 Ibai errekak disdiska,  
 Alako goisik ez dot ikusi  
 Ikusi arren amaika.

Bizkayak ditu ibar galantak,  
 Danetan baña nausia  
 Uste dot dala Gernika aldeko  
 Zelaitza zabal andia;  
 Ain da malatsa, aiñ lur ugari,  
 Madura zoragarria,  
 Non bizi oi dan neke gichigaz  
 Eroso nekazaria.

(1) Poesía premiada en concurso celebrado en Bilbao.

Begizteteen baña Gernika  
 Toki aiñ entzutetsua,  
 Samurtu jatan biotza laster  
 Bai eta poztu barrua;  
 Bera zalako joateko ara  
 Biztu eustana gogua,  
 Bera zalako gure ertegi  
 Gure Batzarren lekua.

Bai, anche neban garaicho baten  
 Begiztau eche santua,  
 Gure legien ol zar zabalen  
 Gordetegi aiñ dontsua;  
 Zugazti batek eukala ondo  
 Egoki kerizpetua,  
 Baña zugatz bat an ortu baten  
 Nekusan berarizkua.

Anche egoan maitetzen neban  
 Arech danetan autua,  
 Zeiñen aurrean itzalez laster  
 Billostu neban burua;  
 Ikusitean baña zartuta  
 Osoro aguratua,  
 Begietatik abiau jatan  
 Tantakaz jausten malkua.

Malko artean deituten deusat:  
 ¡O! Arech itzalgarría!  
 Zizpuru luze bat egin eta  
 ¡O! Zugatz agurgarría!  
 Zeruak daki noztik zagozan  
 Or erne eta azia,  
 Izan zinaiten Bizkayarentzat  
 Bere banderan jarria.

¡O! Arech dontsu busti bagea  
 Erejiako euriak,

Zure ezkurra agaitik ziran  
 Danak osasungarriak;  
 Beti ezkotu eutsuzalako  
 Erroma aldeko odehyak,  
 Gorputz susterrak, buru besangak,  
 Abar, kimu ta orriak.

Etzinduezan iñoz eurendu  
 Gaztelar ta arrotz gaiztuak,  
 Nai izan arren areik sarritan  
 Izan bai zure goikuak;  
 Baña bat einda pillo batean  
 Asaba anchiñakuak  
 Gorde ebezan akatsik baga  
 Euren lege zar dontsuak.

Osterantzean esan daiela  
 Gaur Padurako mendiak,  
 Zirealako eurak an izan  
 Orduan ikuslariak,  
 Burua arro ekarri arren  
 Ordoño bildurgarriak,  
 Ea etziran bere odolaz  
 Gorritu ango arriak

Autortu beye Gordešolako  
 Chunchur andi ta chikiak,  
 Zeintzuk dagozan orduan zelan  
 Alan gaur bere zutiak;  
 Ze zurra artu eban Juan Zerda  
 Zeken azartu andiak,  
 Ta ze garaipen barriz bestera  
 Jarichi eban Bizkayak.

Autortu begi Anbotok eta  
 Autortu begi Gorbeyak,  
 Zer artu eban bigarren aldiz  
 Zerda betiko etsayak;

Urreratzean Ochandiora  
Ta askok galtzean biziak,  
Ea irakin ezpeutsen ari  
Orduan errai larriak.

Kantau begie Sollubek eta  
Mugia aldeko tontorrek,  
Ezpazirean izan beste beñ  
Asabak ausiezkorrak;  
Non erdaldunai emon eutsezan  
Gomutagarri gogorrek,  
Ez eukalako neurririk bere  
An bota eben odolak.

Egun guztian an ekin eutsen  
Alderdi biak sutuak,  
Lantza ezpataz eta su-armaz  
Biziro amorratuak;  
Baña nagusi urtendakoan  
Bizkaitar otso zintzoak,  
Bildotsak legez emendik doaz  
Bildurrez Gaztelakoak.

Orretaraše zirealako  
Izan len gure Asabak,  
Gorputza sendo gorde zenduan  
Baita besangok zabalak;  
Erakutsita arrotz guztiai  
Euren bizkaitaz bizarrak,

Aukeran emen eiten ebezan  
Zure azpiko batzarrak.

Agur ¡o! Arech aztu eziña,  
Banoa oraiñ echera,  
Etzaitetz arren oraindik jausi  
Aldicho baten lurrera;  
Semecho orrek bota artean  
Kerizpe zabal ederra,  
Bizi gaitean Asaben gisan  
Lege zarrakaz aurrera.

Zeruak alan gura daijala  
Landara barri samurra,  
Aitak legeche ugari emon  
Arren egizu ezkurra;  
Artu egizu baita zuk bere  
Eiten deutsudan agurra,  
Ikusiko al zaitut barriro  
Egin baño len agura.

Nik emon neutsan berba oriše,  
Sarri jatana gomutau,  
Beti egiterik ezelan bere  
Baña biotzak nai eztau;  
Arbola zarra ill zan betiko,  
Semeak poztuten enau,  
¡¡¡Ay! gure lur on Bizkaia zana  
Bizkaitu dalako danau!!!

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

